



Messages

# INTERNETEKIKO AHOLKUAK

Edit

**Sakelako telefonotik eta Internetik kanpo ere bada bizitza.** Jakina eman ahal dituzula orduak zure makinatxoarekin! Baina jendearekin komunikatzeko ikusmena, entzumena eta mintzamena erabil ditzakezu (oraingoz ez dira atrofiatu).

**Ez sinetsi sarean ikusten duzun guztia.** Xalotasuna sendagarria da. Bila itzazu orri ofizialak eta erkatu informazioa. Balizko opari edo sari dituzten iragarkiekin ez zaitetz engainatua izan. Inork ez du ezer oparitzen.

**Ez jarri sarean eskolako atean jarriko ez zenukeena.** Zure aurpegia tontoarena egiten duen kartela jarriko zenuke ikastetxeko sarreran?... Ez?... Orduan ez igo damutuko zaizun argazki edo iruzkinik. Ezta lagun minentzat ere, etorkizunean izateari utzi ahal diote eta.

**Lagunak, benetakoak.** Bizitza errealean ezagutzen dituzun pertsonekin izan adiskide. Ez dago lotsagarriagorik, sare sozialetan 300 lagun izan eta aurrez aurre ez ezagutzea baino.

**Interneten baino ezagutzen ez dituzun pertsonekin ez izan hitzordurik.** Hau bai begien bistakoa, Watson. Baina dena esan behar da. Kalean zure aurretik pasatzen den lehen pertsonarekin hitz egingo zenuke? Beraz, nola fidatuko zinateke sarean baino ezagutzen ez duzun norbaitekin?

**Konektatzean ez jarri datu pertsonalik.** Halako eskolara noala... halako kiroldegitik natorrela... etxean bakarrik nagoela... Jazartzaile eta lapurrek oso erraz izango dute. Beraz... ez eman zure ohituren gaineko informaziorik. A! Eta web-cama estali erabiltzen ez duzunean; aktibatu eta zelata zaitzaketen troyanoak daude.

**Ez asmatu ez zarena.** Ez izan superguai edo bihurritxo. Hain nekagarria da zelan batzuek zoragarri-plantak egiten dituzten ikustea, zein beste batzuk txutxu-mutxu hutsetan edo txantxa astunak egiten ikustea. Izan jendearekiko begirunea, doan da eta.

**Hitz egin gurasoekin, ez dute kosk egiten.** Ama eta aita dira zure pasahitzak ezagutu behar dituzten bakarrak eta datu pertsonalak emateko edo argazkiak igotzeko baimena eskatu behar diezu. Horrela fardelak saihestuko dituzu. Eta zure intimitateko kontuak direla uste baduzu... azal iezaiezu!

**Zaindu zure ospea.** Gauza onak baino ez igo sarera. Horren erraz. Igotzen duzuna ez delako sekula ezabatuko, zuk kendu arren. Adibidez, Facebook jendeak igotzen duen guztiaren jabea da (letra txikian onartu dute, erregistratzeko erabiltzeko baldintzetan "Onartu" klikatu zutenean ... edo zuk ez duzu Interneten alta letra txikia irakurtzen).

**Azken aholkua zeuk jarriko duzu.** Badakizu zer den Grooming, Phising, Cyberbullying, Apps Malware, Sexting...? Bada, informa zaitetz. Zeuregan pentsatu.